



---

**ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA, HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA LAGUNTZA BALIABIDEAK ANTOLATZEKO PROZEDURA BEREZIAK ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA**

Bat etorri maiztaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskinaren 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, kontsulta publikoa egin behar da goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkaritza handieneko erakundeei, honako gai hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, herritarren parte hartzea eta laguntza baliabideak antolatzekeo prozedura berezien arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkaritza duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2018ko otsailaren 16ra arte, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	Arabako Foru Aldundiak lanean dihardu beste gobernu eredu bat ezartzeko eta finkatzeko xedearekin. Prozesu horretan lehentasuna eman zaie zenbait helbururi; besteak beste hauei: gobernu ona, gardentasuna eta publikotasuna administrazioaren jardunean, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko baldintzak, politika publikoen ebaluazioa, eta herritarren parte hartzea Arabako Lurralde Historikoko arazo publikoetan.
--------------------	--



	<p>Ordezkaritzako demokrazian sakontzeko testuinguru horretan, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Araua, gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarena onetsi zen 2017ko otsailaren 8an, Batzar Nagusietan. Foru arau horren IV. kapituluak hauei buruz dihardu: herritarren parte hartzeari eta parte hartze prozesuei buruz; hau da, parte hartze hori antolatzeko baliabideak ezartzen ditu.</p>
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	<p>Gobernu onaren politikari gagozkiola, funtsezko alderdia da foru zerbitzuen zernahi erabakik, politikak edo kudeaketak eragin ditzaketen pertsonen, elkarteen edo taldeen benetako parte hartzea erraztu eta gauzaraziko duten bitartekoak, baliabideak eta tresnak eraikitzea. Horiek horrela, etorkizuneko dekretu horrek hauek ditu helburu:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>a) Foru jardunen egokitasuna eta zilegitasuna hobetzea.</li><li>b) 1/2017 Foru Arauaren IV. kapituluaren ezarritakoa erregelamendu bidez garatzea.</li></ul>
<b>ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	<p>Aurrekoa dela eta, begien bistakoa da sustatu nahi den dekretu proiektua ezinbestekoa eta egokia dela, herritarren parte hartzea benetan eta eraginkor ahalbidetzeko.</p>
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• 1/2017 Foru Arauak, herritarren parte hartze baliabideak antolatzeko prozedura berezien erregelamenduarenak, azken xedapenetatik hirugarrenean jasotako</li></ul>



	<p>agindua betetzea.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Balioa gehituko duen benetako parte hartze eraginkorrerako eskubidea ezartzea.</li><li>• Herritarren artean parte hartze kultura sendotzea, batez ere Arabako Lurralde Historikoarentzat garrantzi berezia duten gaietan, eztabaida eta erabakitze prozesuak sustatuz.</li></ul>
<p><b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK</b></p>	<p>Arautu nahi den gaia foru arau bat garatzen duen xedapen arauemailea da; hain zuzen ere, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Araua, gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarena, garatzen du, eta, hortaz, Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu bidez arautu behar da, bat etorritik abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 7.2 artikuluan xedatutakoarekin.</p> <p>Ez dago, beraz, beste arau aukerarik, xedapen hau onetsi beharra eta haren egokitasuna saihestu dezakeenik.</p>